

egingo du; bañan lan oyen gayak osorik oraindik ez daudelako, Joñailerako laga da onetxen ardura.

4. Aita Zabala-Arana'k bere *Edesti Donea* Euskaltzaindia'ri ageřtu diyo, aletxo batzuek artzeko arren egiñik. Apaiz jaun langile oni bere lanari dagokiyon saritxo bat lendik Euskaltzaindia'k eman diyo, ta ez du, besterik eman beař diyonik, uste. Auxe bide dala, Euskaltzaindia'k erabaki du: auřerantzean beronen-gandik saria nai duten lanak, irarřkolara baño len, berak ikusi ta azteřtu nai lituzke.

Ta beste gairik ez izanik, otoitzaz, amai eman zayo batzařaldi oni.

---

### Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean, 1922'ko Otsala'ren 23'an.

Batzařaldian bildu ziran, ementxe aipatzen diran euskaltzain jaunak: Azkue, maipuru, Eleizalde, Urkijo, Lakonbe, Landeřetxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai ta Nazario Oleaga, urřgazlea.

1. *Jaurř-sailak* erabaki abek dakařzki: a) Irakuřtzen ikasteko lenengo mařako liburutxo bat azaltzea, Eleizalde jaunaren arđurapean utzi da. b) Lekuona jaunari beřiro idatzi beař zayo, bidali dezala lenbailen Durango'ko idaz-lanen bere aburua. d) Eleizalde jaunak Euskaltzaindia'ri ekařiko diyo bere *Zenbakiztia*, onetzaz zeř egin beař dan erabaki bat artzeko. e) Aita Ariandiaga'ren *Geometria*, Olabide ta Eguskitza jaunak azteřtu bezate. g) *Eusko-Ikaskuntza*'k lenengo

malako *Irakuñtzaidatzitzaz* txosten bat nai luke, ta txosten au, Eleizalde jaunak Epaileko batzañaldirako ekañiko du.

*Jauñsailaren* erabaki abek onetsi ditu Euskaltzaindiak.

2. Euskaltzaiñak, Euskal-idazti-izpariñgi, - aldizki'en idazpuru-laburpenak egiten gogoz jañdun dute, ta sail aundi bat egin-da gero, erabaki da, Urkijo jaunak oso-osoro egin dezakela lan auxe, ta batzañaldi ontan ofetzaz asmatu diran txañtelak beroni eman zaizkiyo.

3. *Ulhenbeck* jaunaren idazki bat maipuruak irakuñi du. Jakintsu onek diyo, beretzat zorion aundiya ditekela euskaltzaleen artean Gernika'n izatea: gogo betez artzen duela bere bizkañ Euskaltzaindia'k jañ duen lana, ta bera ezin etoñi balitz, gaxotasunak utzi ez-da, lana ala prantzezkeraz ala españeraz bidaliko duela. Lanaren gaya auxe da: *Aglutinación y flexión*.

4. Azkue jaunak bere lan edeñ, *afijos vascos* irakuñtzen jañdun du.

Ta beste gayak bigaramoneko batzañaldirako laga-ta, amai eman zayo oni.

---

**Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean,  
1922'ko Otsala'ren 24'an.**

Euskaltzaiñak; goyan aipatu diranak eta Kanpion jauna: Uñgazletatik: Nazario Oleaga. Batzañaldiari asipena eman zayo, betiko`otoitzaz. Azkue maipuru.